

Honaino bai?



Bart parranda... aspaldiko partez. Ondo pasatzeko aitzakiaz kanpoan ibilitako lagun koadrilarekin hitzordua. Taberna batean geratu, ohiko moduan afal aurretik lehen garagardoa hartu, bixitzeko asmoz. Handik hurrengora eta hurrengotik hurrengora afarirako tokira iritsi arte. Honaino bai?

Eseri aurretik kontu kontari azken tragooa hartu behar, afal aurrekoa behintzat. Entsalada ardoz bustitzen dutenen aldean bada oilaskoa sagardoz laguntzea nahiago duenik ere. Baina afal ondorenean ordea kafetxoa eta kopa distilaturok ezin falta. Lotsa galduz kantu eta bertsoa hastean berriaz, arazoak ahaztu eta zigarro eta puruak nonahi, kanutoak prestatzen dabiltzanak ahaztu gabe. Honaino bai?

Jai giroan murgildurik txosnetako algaran nahasten dira txirri, triki, txupito eta

pandero eta haien doinupean baratzeko pikuak hiru txorten ditu dantzan jartzen dira, kalejiran jendartera. Tragoz trago beldurak desagerrarazten hurrengo tabernara, bila eta bila. Bada elurra saltzen duenik eta komun zuloei hautsa kentzen dienik ere. Eta gauari motz deritzonak, baditu mila koloretako aspirinak eta argidun diskotekak. Honaino bai?

Nahaste-borraste honetan ezin ahaztu ibilera baldarra zein ikusmen bikoitza, is-tripuak, bortxakeria eta jarrera oldarkorak edota inpotentzia eta depresioa. Bihamuna traketsa izan ohi da. Burua lehortzeaz, tripa nahastuta eta bezperako aldizkako oroitzapenak. Honaino bai?

Izenik gabeko herri eta protagonista anonimodun kontakizuna hezur-haragizkoa egiten da maiz gure ingurunean. Gu geu ere kokatu gaitezke ziur kronologia honetako punturen batean. Substantzia eta kontsumoaren atzean norbanakoa ezkutatzen baita. Beste hamaikatan bezala, gazteriari egotzitako gaitzen artean koka daiteke honakoa. Eta gehienetan bezala, jatorri kultureleko ohituren ondorioa besterik ez

du jasaten. Baina galderak mahai gainean dirau... non dago muga?

Lege eta arau zorrotzen mehatxupean joan zaizkigu urteak eta emaitza begi bistan da. Jakinminak, norberak denetarik probatu nahiak, ezkutuan ibiltzearen morboak... lege guztiak baliogabetzen ditu. Drogak beti izan dira gure gizartean, baita izango ere. Jakin badakigu ere arauak arau eta zigorrak zigor, kontsumitu nahi duenak baduela non bilatu. Kontsumoaren helburuak ezberdinak izan daitezke: momentu baterako besterik ez bada ere atsegina lortzea, ihes egitea, integrazioa edota sendatzea. Gehienetan onurak ez dira espero bezalakoak eta ondorioak latzak kontsumo neurrigabea eginez gero. Ondorio fisiko, psikiko eta nerbio sistemakoak.

Egin ditzagun ahaleginak eraginkor. Egin ditzagun informazio kanpaina zabalak, inberti dezagun gehiago heziketan eta ez garagardoz beteriko biberoidun karteletan. Eraginkorragoa baita informazioa publizitate kanpaina ikusgarriak baino, konbentzitzea debekatzea baino, heziketaz, errespetuz, arduraz... honaino bai.